

ERAKUNDEAREN
ZUZENTASUN
SISTEMA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA

BALIOAK ETA PRINTZIOIAK

JOKABIDE KODEAK

BERME ORGANOAK

KARGU PUBLIKOAK

ENPLEGU PUBLIKOAK

KONTRATAZIOA

DIRULAGUNTZAK

Erakundearen Zuzentasun Sistema kudeaketa sistema bat da, balio, printzipio eta kode multzo baten bidez eta berme organo baten bidez egituratzen dena; horrez gain, gardentasun, kontu emate eta ebaluazio mekanismoak ere baditu.

Sistema horren helburua da zuzentasunaren eta gobernu onaren estrategia bat ezartzea, funtzio publikoa balioan jartzen eta kudeaketa publikoan praktika onak garatzen lagunduko duena, erakundearen eraginkortasuna eta herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak hobetzeko.

ZEINTZUK DIRA HELBURUAK?

Zuzentasunaren kultura garatzea eta sustatzea arduradun eta langile publikoetan eta zerbitzu publikoak ematen parte hartzen duten pertsona zein entitateetan. Erakundearen irudiari kalte egin diezaioketen jokabide desegokiak prebenitzea.

ZEINTZUK DIRA SISTEMAREN BALIOAK?

Ordezkaritza

Kargu publikoa betetzen duten pertsonen erakundearen irudiak eskatzen duen duintasun eta begirunearekin bete behar dituzte ordezkaritza funtzioak.

Zuzentasuna

Funtzio publikoak betetzeko orduan, foru sektoreko kargu publikoek eta langileek beren funtzioei dagokien jokabide etikoa izango dute.

Eredugarritasuna

Portaera eredugarria izatera behartzen du, foru sektore publikoaren zerbitzura dauden kargu publiko eta langileak baitira erakundearen irudiaren isla.

Zintzotasuna eta interes eza

Jarduerak soilik bideratu behar dira interes publikoa eta herritarren interesak erabat betetzera.

Objektibotasuna

Interes orokorren, funtzio publikoak betetzearen eta herritarren zerbitzura dagoen sektore publikoko berezko zereginek eskatzen duten objektibotasunez jardun behar da.

Profesionaltasuna

Funtzioak profesionaltasun handiko irizpideekin bete behar dira.

Eraginkortasuna

Baliabideen kudeaketa eraginkorra izango da, ez da inola ere xahutuko, eta baliabideak ahalik eta gehien optimizatuko dira.

Bizikidetzeta eta errespetua

Bizikidetzeta, elkartasuna eta tolerantzia oinarri dituen gizartea indartzea eskatzen du, betiere pertsonen arteko errespetua, aniztasuna eta solidaritatea bultzatuz.

ZER ELEMENTUK OSATZEN DUTE ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA?

Kodeak prestatzea, etika arloko prestakuntza, arriskuaren ebaluazioa, interes gatazken inguruko kontsultarako, salaketarako eta kudeaketarako mekanismoak, eta, bereziki, sistema bermatzeko organoa funtsezko elementutzat jotzen dira foru sektoreak bere zuzentasun estrategia garatzeko duen arkitektura etikoari dagokionez.

01

Jokabide kodeak

Sistemak autorregulaziorako dituen oinarriko tresnak dira, zuzenean edo zeharka funtzio publikoak betetzen dituzten pertsonen izan behar dituzten balio, printzipio eta jokabide nahiz jarduketa arauak identifikatzen dituztenak.

02

Berme organoa

Erakundearen Etika Batzordea da Zuzentasun Sistema bermatzen duen organoa, eta batzorde horren ardura da egiaztatzea behar bezala betetzen direla onartutako kodeei dagozkien balioak, printzipioak, eta jokabide nahiz jarduketa arauak, eta ebaztea jasotako kexa eta salaketak.

03

Hedapen eta prebentzio sistemak

Kargu publikoari eta enplegatu publikoari zuzendutako prestakuntza programak dira. Hezkuntza sisteman ere bultzada bat ematea aurreikusten da, etikaren eta zerbitzu publikoaren balioetan trebatzeko ekintzen bidez. Prebentziorako neurriak komunikatzeko eta hedatzeko programak ere sartzen dira.

04

Kontuak ematea eta ebaluazioa

Herritarrei sistemaren kudeaketari eta garatutako jarduketari buruzko kontuak emango zaizkie, eta aldian-aldian sistema ebaluatuko da, haren betetze maila eta emaitzak neurtzeko.

05

Berrikuspena

Sistema hiru urtean behin berrikusiko da, eta kodeak Erakundearen Etika Batzordearen gomendioen arabera egokituko dira.

KARGU PUBLIKOEN JOKABIDE ETA JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

ZEIN DA HELBURUA?

Foru kargu publikoek beren funtzio eta jarduera publikoak edo, hala badagokio, pribatuak betetzean izan eta sustatu behar dituzten balioak, printzipioak eta jokabide arauak ezartzea, betiere erakundearen irudiaren onerako denean.

NORI APLIKATU BEHAR ZAIO?

Diputatu nagusia eta foru diputatuak; zuzendari nagusiak; foru sektore publikoko zuzendariak eta gerenteak; foru enpresa publikoetako administrazio kontseilueta kideak; Foru Aldundiari atxikitako kontsultatzaileak; gobernu organoetako kideak; beraien sorrerako arauak edo izendapenean aurreko karguei balioak izan direnak; aholkularitza funtzioak dituzten behin-behineko langileak.

ATXIKIPENA

Kargu publiko guztiak izendatu eta kontratatu aurretik, kode honetara atxiki beharko dira.

BALIOAK ETA JOKABIDE ARAUAK

- 1. Ordezkaritza:** funtzioak betetzea Gipuzkoako herritar guztien ordezkaritza direla jakinda eta erakundearen irudia eta begirunea zainduz beti, hura kaltetzen duten jokabide desegokiak saihestuz.
- 2. Zuzentasuna:** kodearen arabera jokabide etiko akatsgabekoa, baita bizitza pribatua ere, faboritismo susmoak sor ditzaketen ekintzak saihestuz eta kargu publikoa izateagatik edozein abantaila motari uko eginez.
- 3. Eredugarritasuna:** langileentzako erreferentzia izango den lidergoa eta giro etikoa bultzatzea, baliabide publikoak modu egokian erabiliz, auto ofizialak barne, eta bidaien eta otorduen erregistro bat eramanez, xedea eta kostua adierazita. Ez dute kreditu txartelirik izango jardueraren kudeaketak eragindako gastuak ordaintzeko.
- 4. Zintotasuna eta interesik eza:** interes falta zalantza jartzea saihestu behar da. Interes gatazka dagoela esan daiteke interes publikoak norberaren, senideen edo hirugarren pertsonen, entitateen edo enpresen interes pribatuekin bat egiten duten edo bat egin dezaketen gaietan esku hartzen denean, baldin eta erakundearekin harremana hasi aurreko bi urteetan nolabaiteko harremana izan badute; eta gatazka itxura dagoela esan daiteke gai horiek zuzenean eragiten ez dutenean, baina erakundearen objektibotasun irudia kaltetu dezaketenean. Ez da inolako konpentsaziorik onartuko hitzaldietan edo komunikabideetan parte hartzeagatik, lanpostuaren eginkizunekin soilik lotutako jarduerengatik.
- 5. Objektibotasuna:** inpartzialtasuna erabakiak hartzean, interes orokorra defendatuz eta norberaren onura edo hirugarren bati mesede tratua eragin diezaioketen praktikak saihestuz. Erabakiak behar bezala oinarrituta egon behar dira, bereziki izendapenetan, kontratazioetan eta dirulaguntzetan.

6. Profesionaltasuna: beren funtzioak betetzeko gutxieneko gaitasun profesionalak dituztela egiaztatzea beharko dute, eta gaitasunetan prestatzeko konpromisoa hartu. Kudeaketa akordio bat sinatuko da lortu beharreko helburuekin, eta errendimendua ebaluatuko da.

7. Eraginkortasuna: baliabideen erabilera optimizatzea, hobekuntza prozesuak eta politika publikoen ebaluazioa sustatuz.

8. Bizikidetzatza eta errespetua: jokabide pertsonalaren bidez, bizikidetzatza, elkartasuna, elkarrekiko errespetua eta aniztasuna oinarri dituen gizarte indartzea.

JARDUTEKO PRINTZIBIOAK ETA ARAUAK

- 1. Lidergo partekatua eta eraldatzailea:** politika eta erakunde publikoen antolaketa jasangarri eta eraldatzailea, lankidetzatza publiko-pribatua, eraldaketa eta berrikuntza, talde lana eta erakundearen arteko lankidetzatza sustatuz.
- 2. Gardentasuna:** publikitate aktiboa bultzatuko da lege eskakizunetatik harago, herritarrek jakin dezaten nola antolatzen eta funtzionatzen diren foru erakundeak eta nola erabiltzen dituzten baliabide publikoak. Goi kargudunen agendak publikoak izango dira, eta bilerei eta ekitaldiei buruzko informazioa jasoko dute.
- 3. Datuen eskuragarritasuna:** informazio publikoa eskuragarri jartzea eta berrirabiltzea sustatuko da, informazioa ezagutza bihurtuz, betiere herritaren bizi kalitatea hobetzeko eta hazkunde ekonomikoa sustatzeko. Informazioa eskuragarri jartzeari eta berrirabiltzeari buruzko berariazko konpromisoa jasoko da urtero, eta ebaluatu egingo da.
- 4. Kudeaketa eta berrikuntza publikoko eredu berria:** prozesuak hobetzea, betiere ikaskuntza kolektiboa sistematikoki ekarriko duen berrikuntza eta esperimendua sustatuz.
- 5. Euskara sustatzea eta erabiltzea:** seuskararen erabilera lehentasunezkoa izango da bai lan politiko-administratiboaren garapenean, bai herritarrekiko harremanetan.
- 6. Kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde-oreka:** jarduerak sustatzea lurraldearen lehiakortasuna eta gazteen enplegua sustatzeko, eta gizarte ezberdintasunak ezabatzeke.
- 7. Harremanetan oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa:** herritarrek politika publikoak sustatzen, diseinatzen, gauzatzen, erabakiak hartzen eta ebaluatzen parte hartzeko bide eraginkorrak mantenduko dira modu aktiboan.
- 8. Kontuak ematea:** baliabideen erabilera, erabakiak eta ez-betetzeak aldizka justifikatzea. Helburuak justifikaziorik gabe edo modu larrian betetzen ez badira, izendapena egin zuen agintariaren esku jarriko da kargua.

ENPLEGU PUBLIKOAREN ETA KUDEAKETA ONAREN KODEA ETIKOA



ZEIN DA HELBURUA?

Enplegatu publikoek beren eginkizunekin zerikusia duten jarduera profesionalean izan behar dituzten balioak, printzipioak, jokabide arauak eta jardun profesionaleko arauak ezartzea. Hori betez, foru administrazioaren azpiegitura etikoa indartzen da, enplegatu publikoen eredugarritasuna, objektibotasuna eta bikaintasuna nabarmenduz, eta zerbitzu publikorako eta herritarrentzako orientaziorako bokazioa sustatuz.

NORI APLIKATU BEHAR ZAIO?

Foru Administrazioa eta haren sektore publikoko entitateetako langile publiko guztiak.

ATXIKIPENA

Deontologia profesionala indartzeko izaera duenez, nahitaez bete behar da, atxikipen espezifikorik gabe.

BALIOAK ETA JOKABIDE ARAUAK

- 1. Zuzentasuna:** jokabide etiko ukiezina, kodearekin bat datorrena funtzio publikoak betetzean, faboritismo susmoak sor ditzaketen ekintzak saihestuz eta kargu publikoa izateagatik edozein abantaila motari uko eginez, zuzenekoa zein zeharkakoa.
- 2. Eredugarritasuna:** jarduera herritarren zerbitzura dagoen erakunde batean garatzen dela ulertzea eta, beraz, portaera eredugarria izatea, erakundearen irudiari kalte egin diezaioketen jokabideak saihestuz eta funtzio publikoengatik eskura jarritako ondasunak eta zerbitzuak modu desegokian ez erabiltzea. Erantzukizuna duten edo ardurapean pertsonak dituzten postuek bereziki gidatuko dituzte arreta etikoko jokabideak. Jarduna murrizten duten jokabideak saihestuko dira, eta gailu pertsonalak zentzuz eta etikoki erabiliko dira; baita ere Internet erabilera pribaturako denean.
- 3. Zintotasuna eta interes eza:** interes falta zalantza jartzea saihestu behar da. Interes gatazka dagoela esan daiteke interes publikoak norberaren, senideen edo hirugarren pertsonen, entitateen edo enpresen interes pribatuekin bat egiten duten edo bat egin dezaketen gaietan esku hartzen denean, baldin eta erakundearekin harremana hasi aurreko bi urteetan nolabaiteko harremana izan badute; eta gatazka itxura dagoela esan daiteke gai horiek zuzenean eragiten ez dutenean, baina erakundearen objektibotasun irudia kaltetu dezaketenean. Ez da inolako konpentsaziorik onartuko hitzaldietan edo komunikabideetan parte hartzeagatik, lanpostuaren eginkizunekin soilik lotutako jarduerengatik.
- 4. Inpartzialtasuna eta objektibotasuna:** objektibotasuna interes orokorraren defentsan, eta norberaren onura edo hirugarren bati mesede tratua eragin diezaioketen praktikak saihestuz, batez ere lanpostuak eskuratzeko, sustatzeko eta betetzeko prozeduretan, kontratazioetan eta dirulaguntzetan.

5. Bikaintasun profesionala: konpetentzia profesionalak etengabe garatu eta hobetuko dira, profil profesionala optimizatzeke eta lanpostuari esleitutako funtzioak behar bezala betetzeko. Izendapen libreko lanpostuetan, beharrezkoak diren gutxieneko gaitasunak egiaztatzea beharko dira. Aktiboki lagunduko dute ezagutza kudeatzeko prozesuetan.

6. Eraginkortasuna: baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra, erantzukizunetza eta proportzionaltasunetza jokatuz.

7. Errespetua: jokabide pertsonalaren bidez, bizikidetzatza, elkartasuna, tolerantzia, eta aniztasuna oinarri dituen lan eta lanbide giroa eta herritarrekiko giroa sustatzea.

JARDUTEKO PRINTZIBIOAK ETA ARAUAK

- 1. Gardentasuna:** herritarrei informazio publiko garrantzitsu guztia emango zaie, modu aktiboan edo eskatzen denean, eta erantzun azkarrak, eraginkorrak eta arrazoituak emango zaizkie.
- 2. Datuen eskuragarritasuna:** datuak eta informazio publikoa eskuragarri jartzea eta berrirabiltzea sustatuko da, bizi-kalitatea eta hazkunde ekonomikoa hobetzeko.
- 3. Kudeaketa eta berrikuntza publikoaren kultura:** jarduera profesionalean kudeaketa kultura mota bat garatuko da, proiektuetan, sormenean eta ekimenean inplikazio handiagoa izango duena, bai eta berrikuntza praktikak bultzatzea eta administrazio elektronikoa garatzea ere.
- 4. Euskara sustatzea eta erabiltzea:** euskara lan eta zerbitzu hizkuntza gisa erabiltzea sustatuko da, erakundearekin, herritarrekiko eta elkarrekin harremanetan.
- 5. Erantzukizun profesionala:** enplegu publikoaren azken eta funtsezko helburua herritarrei zerbitzua ematea da, eta langile publikoak bere gain hartu behar dituzten berezko funtzioak eta jokabideak oker gauzatzearen ondorioak. Eguneroko kudeaketa xede eta helburu estrategikoen bidez egingo da, eta kudeaketaren emaitzak ebaluatzeke adierazleak beteko dira.



KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA

ZEIN DA HELBURUA?

Kontratazio prozeduraren edozein fasetan esku hartzen duten pertsonak bete beharreko balioak, printzipioak eta jokabide arauak zehaztea, interes publikoaren zuzentasuna eta lehentasuna ziurtatzeko eta prozesuaren fase guztietan disfuntzioak, eraginkortasun ezak eta iruzurrak prebenitzeko.

NORI APLIKATU BEHAR ZAIO?

- Kontratazio prozeduretan esku hartzen duten foru sektore publikoko kargudun eta langile publikoei.
- Enpresa eta entitate lizitatuak.

ATXIKIPENA

Kode hori oinarriko betebeharra da, eta ezinbestean bete behar dute lizitazioetan lehiatzen diren enpresek eta entitateek eta horien adjudikaziodunek.

FORU SEKTORE PUBLIKOKO KARGUDUN PUBLIKOEI ETA LANGILEEI APLIKATU BEHARREKO ZUZENTASUN ESPARRUA

Balio etikoak: Erakundearen Zuzentasun Sistemari jasotakoak. Ordezkaritza, zuzentasuna, eredu-garritasuna, zintzotasuna eta interes eza, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna, bizikidetzatza eta errespetua.

Balioak: gastu publikoaren eraginkortasuna, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, elkarrekiko aitortzea, gardentasuna, eta zuzentasuna.

Kontratazio prozeduran aplikatzekoak diren arau espezifikoak:

- Jarduera ekonomikoaren edo lan interesen gatazka egoeren berri ematea.
- Kontratazio prozeduretan esku hartzen duten pertsonen prestakuntza.
- Kontratazio prozesuetan parte ez hartzea, interes gatazka dagoela edo interes gatazka dagoela dirudien kasuetan.
- Prozesuan eskuratutako datuen eta informazioaren konfidentzialtasuna gordetzea.
- Opariei uko egitea eta helbide pertsonalik ez ematea.
- Prozesua behar bezala gauzatzen dela bermatzea, eta ikusten diren iruzurraren berri ematea.
- Kontratuen ordaintzen, egiaztapenaren eta likidazioaren lehentasun hurrenkeran erantzukizunez jardutea.

ENPRESA EDO ENTITATE LIZITATZAILEEI APLIKA BEHARREKO ZUZENTASUN ESPARRUA

1. Alderdi orokorrak

- Kodea betetzeko konpromisoa sinatzea, lehiatu ahal izateko.
- Praktika irregularrak, ustelkeriak edo lehiaren aurkakoak salatzea eta, hala badagokio, eskaintza ukatzea.
- Beste lizitatuak edo alderdi interesdun batzuekin interes gatazkarik ez izatea.
- Parte hartze lehiakorra eta fede onekoa. Beste enpresa batzuekin akordio ekonomikorik ez egitea. Ez aurkeztea prezioa errespetatzen ez duen eskaintzarik. Kontratazio mahaiari presiorik ez egitea; mahaiari prezioa egiteak eskaintza baztertzea dakar.

2. Kontratuaren prestatzea eta diseinatzea

- Kontsulta prozesuan parte hartzeak ez du inolako abantailarik eragiten, informazio tekniko objektiboa eta garrantzitsua ematen baitu soilik. Lehiaren murrizketa eragingo duten preskripzioak nabariztu gero, kontratazio organoari jakinarazi behar zaio.
- Sekretu profesionala gordetzea.
- Prozeduran zehar harremanik ez izatea kargu publikoekin eta teknikariek, legean aurreikusitako egoeretan eta baldintzetan izan ezik.
- Proposamena baztertuko da kasu hauek antzematen badira: ezohiko gastuak, ustekabeko komisioak, zerbitzurik gabeko komisioak, paradisuetan ordaindutako zergak, garbi identifikaturik ez dagoen onuradun bati egindako opariak eta antzeko beste opari batzuk, eta abantailen eskaintza.

3. Kontratuak gauzatzea

- Hitzartutakoa zuzen gauzatzea eta betetzea, objektuari, kalitateari edo prezioari dagokionez gehiegikeriarik egin gabe.
- Azpikontratutako enpresei informazioa, kontratuaren kopia, ordaintzenaren justifikazioa eta kodeari buruzko informazioa ematea, kolusiozko edo lehiaren aurkako praktikarik egin gabe.
- Kontratuen aldaketa irregularrak zigorrak ekarriko ditu.

4. Kontrola eta zigorra

- Kontrolak egin eta onartu direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko konpromisoa, bereziki iruzurra egin dela susmatzen denean edo gertatzeko arriskua dagoenean.
- Kodea ez betetzeari lotutako zigorrak, larritasunaren arabera, kontratatutako prezioaren % 10eraino irits daitezke, eta, oso larria bada edo doloa edo zabarkeria egon bada, kontratua deuseztatu daiteke.

LAGUNTZEI ETA DIRULAGUNTZEI APLIKA BEHARREKO JOKABIDE KODEA



ZEIN DA HELBURUA?

Zuzentasunaren kultura bultzatzea eta sustatzea, eta jokabide desegokiak prebenitzeko dirulaguntzak emateko prozesuan parte hartzen duten edo dirulaguntzen hartzaile diren eragile guztien kasuan.

NORI APLIKATU BEHAR ZAIO?

- Laguntzen eta dirulaguntzen prozeduretan parte hartzen duten foru sektore publikoko kargudun eta enplegatutako publikoei.
- Laguntzen eta dirulaguntzen erakunde, enpresa eta gainerako erakunde onuradunei.

ATXIKIPENA

Kodearekiko atxikipena baldintza gisa sartuko da lehiarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan eta deialdietan; zuzeneko laguntzetan, atxikipena nahitaezkoa izango da laguntza eman aurretik.

FORU SEKTORE PUBLIKOKO KARGUDUN PUBLIKOEI ETA LANGILEEI APLIKATU BEHARREKO ZUZENTASUN ESPARRUA

Balio etikoak: Erakundearen Zuzentasun Sistemari jasotakoak. Ordezkaritza, zuzentasuna, eredu-garritasuna, zintzotasuna eta interes eza, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna, bizikidetzatza eta errespetua.

Emateko prozeduran aplikatzekoak diren arau espezifikoak:

- Dirulaguntzak publikitatearen, lehiaren eta berdintasunaren printzipioen arabera ematen direla bermatzea.
- Zuzeneko laguntzak emateko araudiaren interpretazio murriztailea egitea.
- Balorazio bidezko teknikoan ez da egongo kargu publikorik, sindikatuaren ordezkaririk eta behin-behineko langilerik.
- Baldintza, irizpide, prozedura, esleipen eta balorazio guztiak argitaratzea, gardentasuna, inpartzialtasuna eta objektibotasuna bermatzea.
- Dirulaguntzak ebaluatzeko eta emateko irizpide objektiboak eta, bereziki, kuantitatiboak ezartzea.
- Gauzatze kontrola bermatzea.
- Ezingo dute prozeduran parte hartu, ezta balorazio bidezkoetan ere, bigarren mailara arteko senitartekoak esku hartzen dutenean.
- Arreta berezia jartzea interes gatazka zuzenetan eta inplizituetan, eta zalantza guztiak Erakundearen Etika Batzordera bideratzea.
- Informazio publikorako sarbidea bermatzea.

LAGUNTZEN ONURADUN DIREN ENTITATE, ENPRESA ETA ORGANISMOEI APLIKATU BEHARREKO ZUZENTASUN ESPARRUA

Balioak: zuzentasuna, zintzotasuna eta interes eza, efizientzia, errespetua.

Printzipioak: gardentasuna, datuak eskura jartzea, euskara sustatzea eta erabiltzea, kohesio ekonomiko eta soziala, eta kontuak ematea.

Aurretiko eskakizunak:

- Oinarriko eskubide eta askatasun publikoak errespetatuko dira.
- Baliabideak onura publikoko helburuetarako erabiliko dira.
- Dirulaguntzak arautzen dituen araudia bete behar da.
- Norgehiagoka bidezko laguntzei dagokienez, entitatearen gobernu organoak kodea betetzeko konpromisoa hartuko du.
- Laguntza zuzenen kasuan, laguntza eman aurretik aurkeztu behar da kodearekiko atxikipena.

Jokabide eta jarduketara arau osagarriak:

- Entitatearen gobernu organoetako kideen izenak argitaratzea.
- Antolaketari eta helburuei buruzko informazio argia eta ulergarria aurkeztea.
- Ez faltsutzea laguntzak kudeatzeko informazioa eta fiskalizazioan laguntzea.
- Kargudun eta enplegatutako publikoak interes gatazka egoeran jartzen dituzten jarduketak saihestea.
- Informazioa egiazkoa, osoa, garrantzitsua eta eguneratua dela bermatzea.
- Kodearen balioak eta printzipioak urratzen dituzten erabakiak ez hartzea.
- Laguntza edo dirulaguntzaren ondorioz ezagutzen den isilpeko informazioa ez zabaltzea.
- Entitateko zuzendaritzak eta langileek interes gatazkarik ez dutela bermatzea.
- Kodea behin eta berriz ez betetzeak laguntza itzultzea ekar dezake.



ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEA



Autonomia osoa duen organo independentea da. Batzordeak kontuak emateko printzipioari eta gardentasun printzipioari jarraituko die.

Helbide elektronikoa honetan dago batzordeari buruzko informazio guztia eta haren ebazpenei buruzkoa:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea>

ZEIN DA HELBURUA?

Kodeetan araututakoa bete dadin bultzatzea, sustatzea eta zaintzea, eta erakundea kaltetzen duen edozein ez-betetze edo jokabide desegoki prebenitzea.

ZEINTZUK DIRA BERE FUNTZIOAK?

Prebenitzea, prestakuntza programen proposamenen bidez, jokabide desegokiak eta, horrela, erakundearen irudia eta klima etikoa babestea eta bermatzea.

Ebaztea, ebazpen eta txostenen bidez, egindako kontsultak eta azalduetako zalantza eta dilema etikoak.

Izapidetzea eta ebaztea kodeetan jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik aurkezten diren kexa eta salaketak.

Egitea Batzordearen jarduerari buruzko urteko txostena, eta, beharrezkoa bada, kode ezberdinetan ezarritako edukiak aldatzea.

ZEIN DA KONPOSIZIOA?

Batzordea 5 kidek osatzen dute, eta horietatik 2 kargu publikoak dira eta 3 kanpoko adituak.

Enplegu Publikoaren Kodeari eragiten dioten gaiak aztertzeke, langileen ordezkariak izendatutako pertsona batek parte hartu ahal izango du.

Espezializazioa eskatzen duten gaietan, gai horietan adituak diren pertsonak parte hartu ahal izango dute.

NOLA BIDERATU KONTSULTAK ETA SALAKETAK ETIKA BATZORDERA?

Nork jo dezake Batzordera?

Edozein herritarrek. Kode desberdinen eremu subjektiboaren barruan dauden pertsonak.

Zertarako jo daiteke Batzordera?

Zuzentasun Sistemarekin lotutako kontsultak edo zalantzak planteatzeko. Ustez egokiak ez diren eta erakundearen balio etikoekin bat ez datozen jokabideei buruzko salaketak edo kexak jartzeko.

Nola tratatzen eta ebazten ditu gaiak Batzordeak?

Aztertzen ari diren gaien konfidentzialtasuna bermatzen du Batzordeak. Salaketak edo kexak anonimoak izan daitezke, eta Batzordeak neurriak hartuko ditu salatzailea babesteko. Ebazpena arrazoitua eta proportzionala izango da beti. Gaiak gehienez 15 eguneko epean ebartziko dira.

Nola jo Batzordera?



- Esteka: <https://report.whistleb.com/eu/izfe>
- Posta elektronikoa: zuzentasuna@gipuzkoa.eus
- Foru Aldundiko Erregistroan idatzia aurkeztuta.

